


JARRAIBIDEAK:

Bi aukeretatik, A eta B, bat hautatu, eta erantzun aukera horrek dauzkan bi zatietako aztergaiei.

A AUKERA**1. ZATIA (5 puntu)**

Irudian argitutako algekin lortu diren kromatogramen autoerradiografia baten emaitzak erakusten dira.

**Aztergaiak.**

- Fotosintesi kontzeptua. Azaldu fotosintesi jarduera aldatzen duten hiru faktoreen eragina, gutxienez ere. **(1,25 puntu)**
- Fotofosforilazioa fotosintesiaren argitako fasean gertatzen den prozesua da. Zertan datza prozesu hori, eta non gertatzen da? Zenbat fotofosforilazio mota dago? **(1,25 puntu)**
- Zergatik gertatzen da uraren fotolisia? Arrazoitu erantzuna. **(1,25 puntu)**
- Organismo autotrofo guztiak fotosintetikoak al dira? Arrazoitu erantzuna. **(1,25 puntu)**


2. ZATIA (5 puntu)

Aztergaiak.

- a. Azal itzazu, adibideekin, gluzidoek izaki bizidunetan betetzen dituzten funtzio biologiko garrantzizkoenak. **(1,25 puntu)**
- b. Azaldu zer arrazoiengatik jotzen dugu ura disolbatzaile unibertsaltzat. Zergatik da hain garrantzizko funtzio hau izaki bizidunetan? **(1,25 puntu)**
- c. Erreduzitua dagoen molekula batetik lana egiteko energia lor daiteke. Nola gertatzen da hau zelulan? **(1,25 puntu)**
- d. Aipatu zeintzuk diren birus baten ziklo litikoaren eta ziklo lisogenikoaren arteko ezberdintasunak. **(1,25 puntu)**

1. ZATIA (5 puntu)

Irudiak erakusten du mekanismo bat, zeinaren bidez uste baita HI histonak laguntzen duela DNA enpaketatzen nukleosometan.



Aztergaiak.

- a. Zer da kode genetikoa? Aipa itzazu kode genetikoaren ezaugarriak. (1,25 puntu)
- b. Polipeptido batek 450 aminoazido baldin baditu, esan zenbat erribonukleotido edukiko dituen aminoazido horiek kodetzen dituen RNAm-ren zatiak. Arrazoitu erantzuna. (1,25 puntu)
- c. Aipatu eta definitu informazio genetikoaren adierazpenean gertatzen diren prozesuak. (1,25 puntu)
- d. Zer esan nahi du DNAREN erreplikazioa erdikontserbakorra dela baieztatzeak? (1,25 puntu)

2. ZATIA (5 puntu)

Aztergaiak.

- a. Azaldu ezazu inhibizio konpetitiboak eta inhibizio ez konpetitiboak nola eragiten dieten entzimaren erreakzio-abiadurari eta entzimak substratuarekiko duen kidetasunari. Erantzuna grafikoki irudikatu. **(1,25 puntu)**
- b. Azaldu zer ezberdintasun dauden, egiturari, propietateei eta funtzionaltasun biologikoari dagokienez, triazilglizeridoen eta fosfolipidoen artean. **(1,25 puntu)**
- c. Norbanako baten zelula somatiko guztiek kromosoma-kopuru eta kromosoma-mota berdinak dituzte? Arrazoitu erantzuna. **(1,25 puntu)**
- d. Zer dira antigorputzak? Deskriba itzazu bere konposizio kimikoa eta egitura molekularra. **(1,25 puntu)**